

# Sara, etxeak eta deiturak lau mendez (XVI-XIX)

Xabier Elosegi



31

# **Sara, etxeak eta deiturak lau mendez (XVI-XIX)**

Laburpena / Résumé / Resumen .....	9
Udalaren aurkezpena .....	11
Aintzin solas orok orra .....	13
Kartografia .....	17
Agiriak .....	21
Dokumentuak eta agiri-multzoak .....	25
<b>1. ETXEAK</b>	
1.1. Bi Hitz .....	35
1.2. Taula .....	39
1.3. Etxe-izenak .....	53
1.4. Etxeen ager tze-desagertzeak .....	58
1.5. Zerrendak .....	72
1.6. Bordak .....	87
1.7. Lur jabegoa 1839an .....	100
1.8. Sarako etxeen historia labur ra .....	128
<b>2. DEITURAK</b>	
2.1. Aintzin solasa .....	287
2.2. Deituren ager tze-desager tzeak .....	293
2.3. Deituren taula .....	320
2.4. Atsularren bataio libur ua .....	346
2.5. Deituren Saratar tasunaz .....	356
<b>Azkena .....</b>	<b>375</b>
<b>Bibliografia</b>	<b>377</b>
<hr/> <b>Sara, les maisons et les noms de famille pendant 4 siècles (XVI-XIX)</b> 383	
Bibliographic Section .....	437

Lan hau Sarak o herri-artxiboen (8.654 sor tze-agiri, 1.555 ezkontz-agiri, 4.925 heriotze-agiri) ikerketa xehe eta oso baten ondorioa; bai eta ere zonbait dokumentu baliosen (kalastra zahar ra barne) ikerketaren ondorioa. Bi taula dira lan honen hezurdura: etxeen taula eta deituren taula. Taula horiek etxe-i zenak eta deiturak osotasunean eta denbora kontutan harturik eginak dira. Agirien taula, zonbait karta eta atal berezi batzu osatzen dute liburu, izaitez kontsulta-liburua izan behar lukeena. Hori da egilearen xedea.

Ce travail est la conséquence d'une recherche détaillée et complète des archives municipales de Sara (8.654 actes de naissance, 1.555 actes de mariage, 4.925 actes de décès) et, également de l'étude de plusieurs documents importants dont l'ancien cadastre. Deux tableaux sont à la base de ce travail : celui des maisons et celui des noms de famille. Sur ces tableaux figurent la totalité des noms des maisons et des noms de famille, le paramètre temps étant pris en compte. Le tableau des archives, quelques cartes et certains chapitres spécifiques complètent ce travail qui se voudrait un livre de consultation. C'est le dessein de l'auteur.

El presente trabajo es el resultado de una investigación detallada y completa (8.654 partidas de nacimiento, 1.555 partidas de matrimonio, 4.925 partidas de defunción); y también es resultado del análisis de ciertos documentos valiosos (incluido el viejo catastro). Dos cuadros constituyen el armazón de este trabajo: el cuadro de las casas y el cuadro de los apellidos. Estos cuadros han sido confeccionados teniendo en cuenta los nombres de las casas y los apellidos en su totalidad y en el tiempo. Se completa el libro con el cuadro de documentos y algunos mapas y capítulos especiales. Conforme a la intención del autor, éste debería ser un libro de consulta.

## **UDALAREN SARRERA**

Sarari buruzko liburu hunen (Eusk o Ikaskuntza elkar tearekin partaidetza argitaratua) aurkezpenaren egitera heldu naiz eta eginbehar hau atseginez egiten dut zinez. Atsegina oraino handiagoa da libur ua bera eus karaz pentsatua eta egina delak otz, nahiz baduen frantses itzulpena.

Bada liburu hunetan zer ikasia Sarari bur uz, bainan erran nezake euskal-duna bere etxeari errotik atxikia izanki, Saratarrek plazerrez atxemanen dute-la bertan etxeari buruzko zonbait xehetasun eta noizdanik izan den ezagutua (oraiko izenez ala, zonbait kasutan, lehenagoko izenez).

Ba dut uste ere libur u hau baliagarria izanen dela Sarari buruzko edozoin ikerketa edo lanarentzat eta ere Euskal Herriaren lehenari, orainari eta geroari atxikiak diren guztientzat, izan diten hemen soratuak ala kanpotik etorriak.

Jean Aniotzbehere  
Sarako auzapeza

## AINTZIN SOLAS OR OKORRA

1987an Sararat bizitzera etorri ginelarik ez nuen, hastapenean bederen, liburu baten izkiriatzek o ideiarik. Ideia hori emeki-emeki etorri zitzaidan orduarte Sarari bur uzko lanak eta libur uak irakurtuz (batez ere Saran Iuzaz bizi izan zen Barandiaranen lanak).

Hastetik ohartu nintzen aspalditik Sara bizi aipatua izan del a eta orai ezagutzen dugun dokumentazioa lehenago ezagutua eta hedatua izan zela. Bi etsenpluz argituk o dut diodana:

- ELEIZALDE jaunak RIEV aldizkarian (1922an hasirik) argitara eman zuen euskal toponimiari buruzko lanean («Lista alfabética de voces toponomásticas vascas») Sarak o toponimoak (etxe-izenak barne direlaik) ainitz eta ainitz dira eta berdin Sarak o deiturak ere. Ele izalde jaunak bazukeen Saran bizi zen norbait bere laguntzaileen artean.
- IRIGARAI jaunak «Contribución a la onomástica vasca» deitu lanean (RIEV 1933) Sarak o 1505eko dokumento batean agertzen diren lerro batzu aipatzen ditu. Dokumento hori (ala dokumento horren kopia bat), bere osotasunean, Poupel eta Bruguera 1987an argitara eman bazuten ere, 54 urte lehenago Irigarai jaunak ezagutu bide zuen.

Orokorki harturik, ez da dudarik Sarari bur uzko ikerketak Barandiaran jaunak markatu zituela «Bosquejo etnográfico de Sara» lan baliosar ekin, bertan diren atal guziak ez badira ere berdin interesgarriak eta egiazko lan baten fruituak, hala nola «Toponimia» deituriko 40 orrialdeko atala nun, berak dioen bezala, «copiamos los nombres de los lugares y de los accidentes de terreno señalados en el plano catastral de Sara del año 1839». Bainan aipatu lanaz bertzalde, Barandiaran jaunak egin zituen ere beraztze lan baliosa k, hala nola, «De antropónomía vasca» eta «Ethnographie Basque. Le calendrier traditionnel de Sare».

Hala beraz, oharkabeen, Poupel eta Bruguera jaunen lana («Note sur l'habitat ancien de Sare») eta Orpustan jaunarenak irakurritz hasi nintzen Sarako etxe zaharren identifikatze eta katalogatze lanetan.

Ondotik egin nuen libur u hunen ezurdura izanen zen lan bikotza: Saran ziren AGIRI GUZIEN DATUAK (eta ere beraztze iturriekin heldu zitzaizkidan datu guziak, hala nola bibliografian agertzen diren liburu eta laneta tik eta Lassus jaunaren hainbat eta hainbat oharrarik bildu datuak) bi fitxa tegjetarat pasatu nituen:

- ETXEEN FITXATEGIA: bertan ematen nituelarik, etxe bakoitzarentat, bildu datu guziak eta ondorioz «Etxeen taula» izena duen 18 orrialdeko taula trinkoa egiteko ahala eman zautana.
- DEITUREN FITXATEGIA: hemendik atera nuelarik «Deituren taula» izena duen 29 orrialdeko taula.

## **Iturriak**

Agiriak: Saran, bertzetan bezala, XVIII. mendearen erdialdetik hunat atxematen dira Bataio-Ezkonta-Heriotze agiriak, lehenagokoak guti di relarik. Hale-re bada Saran 1609-1624 ur teetako bataio-agiri multzo baliosa ( Atsularren bataio liburua deitua izan dena) XVII. mendearen hastapenaz argitasun baliosak ematen dituena.

Orotara 15.134 agiri aztertu ditut: 8.654 bataio edo sortze agiri, 1.555 ezkontza-agiri eta 4.925 heriotze-agiri (1854-1900 ur teetako heriotze-agiriak ez ditut ikertu); agiri guzi horiek sailkatuak dira eta laburbi Iduak «Agirien taula» deitu atalean.

Dokumentuak: Dokumentu zahar retan badira bizpahir u arras baliosak direnak, hala nola 1505eko oa (errege zerga ordaintzen zuten etxee n zerrenda) eta ere 1588ko oa, Manex Goihenetxe jaunak 2000. ur tean Pauen atxemana eta oraino argitaratu gabea (Sarak o lur ber rien eliza-zerga ordaintzen zuten etxeen zerrenda).

## **Zer izkariatzen den eta nola izkariatzen den**

Ez nuke aintzin solas hau bur uratu nahi zonbait lanen arink eriaz bi hitz erran gabe. Ba da sobera hedatua den uste bat (ala ustek eria?) argitaratua dena zuzentzat jotzen duena halabeharrez, eta erran behar da ez dela beti hala. Sararen kasuan bi gai hunkituk o ditut etsenplu gisa.

## **DEITURAZ**

Etzenplu soil bat: Barandiaranen irakur tze makur baten ondorioz HAITZE deitura, bai Kerexeta jaunak eta ondoren Ikuasca berriaren 1993ko zenbakian «Armorial de Sare» deitu lanaren egileak ere, Sarako deitura gis a aipatzentute. Ez da hori bakarra, deitura bera «Ar morial du Pays Basque» liburuan agertzen da beti ere Sarakoa delakoan; halabainan HAITZE deitur a EZ DA SEKULAN EZA GUTUA IZAN SARAN (ikus «Deituren taula»).

## **SARATARREN DEPORTAZIOAZ (1794KO MARTXOTIK 1794KO URRIA ARTE)**

Zonbat izan ziren Sarak o deportatuak? Erran izan da 2.400 eta ere 3.000 depor tatu izan zirela Saran!! eta horien artean 600 hil zirela.

Duela mende bat pasatua Haristo y jaunak zioenez Saran 698 depor tatuak izan ziren bainan egiazki 63 Saratar depor tatuuen izenak ematen ditu (horien artean 8 hilen izenak). Geroztik egin ikerketak eta bereziki Castaings-Beretervide andereak argitaratu duen liburua («La Révolution en Pays Basque» - 1994) k ontutan harturik, bertze 36 izen ditugu (h orien artean 21 hilen izenak) orotara, beraz, 99 izen ditugularik (29 h ilen izenak barne).

Lapurdi osoari gagozkiolarik hauek dira aipatzen diren kopuruak: 4.500/5.000 inguru izan omen ziren depor tatuak eta horien artean 1.600 hilak. Haristoy jaunak ematen duen depor tatuuen kopurua: 1.835, bainan 404 Lapurtar deportatuen izenak ematen ditu bakar rik (horien artean 15 hilen izenak). Mende bat iragan ondoren 492 (horien artean 55 hilen izenak) Lapurtar deportatuen izenak ezagun dira soilik.

Ez da dudarik orduk o Frantziako Gobernamenduak egin zuena Gizadaren kontrako krimen bezala har tuko gendukeela gaurregun eta egiazki hala izan zen. Bainan ordu da, nik uste, kopuruak zuzentzeko eta batez ere egiazko ikerketak egiteko, ez baita zuzena orai ar te bezala egotea.

Sarari buruz erran behar dut 29 hilen kopurua izigarri handia dela eta ziurrenik gehiago ere izan zirela depor tazioan hilak. Bainan nundi kopurua da 600 hilen kopuru hori? Ez da dudarik arras ezinezkoa dela hilen kopurua hain handia izatea, ondoko urteetako sortze, ezkontza eta heriotzeek aiski garbiki frogatzen dutelarik hori.

## KARTOGRAFIA

IGN deitu kar ta izan dut oinarri eta ere, gauza ageria, Sarako Kalastra zaharra (1839) eta oraikoa.

Jakin badakigu zoin ziren 1839an Sarakoko mugak. XVI. mendekoa zerrendak ikusirik ez da dudarik oraikoa etxe ur runenak orduan ere Sarakoan zirela (Ibarla - Ziburua - Zuelbeherea - Uharte - Haranburua ...). Ikusiz bertzalde egonkortasun handia dela beti bai etxeetan bai eremuetan ere, XVI. mendeko Sararioa oaren lur eremua bera eman da oso nahiz hori ezi n frogatua den.

### Karta orokorrak

A) Karta huntan agertzen dira Sarako mugak, errekok eta ere 200 eta 400 metroz goragoko eremuak. Bertan emanak dira zonbait goratasun neurri eta horien arabera ikusten ahal da larriarria:

- Mendebalde eta Hegoan direla goratasun handienak (Larrun, 900 metro - Ibanteli, 698 metro - Atxuria, 756 metro), Azkaine, Bera eta Etxalarreko mugetan.
- Ekialdea aldiz ar runt irekia dela, Baztan (\*) eta Senperekoko mugetan.
- Iparraldean Sualmendi (301 metro), Senpereko mugak.

\* Gauza ageria da, ainitzen usteen k ontra baldin bada ere, Sarako eta Zugarramurdik ez dutela elkarren arteko mugarik. Hain zuzen ere bi herrien artean badira Baztan balearen lurra.

B) Karta huntan agertzen dira, mugak, errekok, goratasunak eta ere 1839ko kalastraren arabera atalak (sekcioneak), Herriaren lurra eta ondorioz herritarrenak.

C) Kalastrako atalak eta ere lehenagokoa auzoen mugak.

D) Herriaren lurra eta herritarren lurra (etxeen inguruko lurra eta ere etxeen inguruetatik kanpo diren herritarren eremuak).


### Etxeen kokatzeari buruzko kartak

O) 1839ko kalastraren araberak o Sarako etxe guziak kokatzen dituen karta. Tokiaren eskasez etxe bakoitzaren izenaren ordez zenbakia bat eman dugu, (Etxeen taula orokorrean erabilitako zenbakia bera).

I) Sarako etxeak XVI. mendean (1505 - 1568 - 1588).


- II) Sarako etxeak 1624ean (ber rien izenak azaltzen dira, zaharrak izenik gabe).
- III) Sarako etxeak 1630ean (ber rien izenak azaltzen dira, zaharrak izenik gabe).
- IV) Sarako etxeak 1680ean (ber rien izenak azaltzen dira, zaharrak izenik gabe).
- V) Sarako etxeak 1715ean (1688 - 1697/1715) - (ber rien izenak azaltzen dira, zaharrak izenik gabe).
- VI) Sarako etxeak 1715/1839 ur tetan (kalastra egin ar tean) - (berrien izenak azaltzen dira, zaharrak izenik gabe).
- VII) Sarako etxeak 1839an (ber rien izenak azaltzen dira, zaharrak izenik gabe).
- VIII) 1839 baino lehen desager tutako etxeak.
- IX) 1839 ondotik desager tutako etxeak.
- X) 1839an Sarako aberatsenen eremuak eta etxeak.

**SARA  
A**




## SARA 1839an

### B




## SARA 1804ean C



## SARA 1839an

### D



## AGIRIAK

URTEA	SORTZE	EZKON.	HERIOTZ		URTEA	SORTZE	EZKON.	HERIOTZ
1609	49				1673			34
1610	74				1674			34
1611	57				1675			47
1612	76				1676			46
1613	71				1677			47
1614	62				1678			45
1615	52				1679			35
1616	81				1680			34
1617	61							
1618	56				1697	27	6	14
1619	69							
1620	76				1708	73		
1621	70				1709	33	7	* 14
1622	65				1710	78	27	40
1623	60				1711	34	12	* 20
1624	70				1712	53	17	
					1713	61	9	
1653		22			1714	66	16	* 4
1654		61			1715	60	20	39
1655		33			1716	55	12	39
1656		26			1717		* 3	33
1657		44			1718	* 12	17	33
1658		38			1719	78	5	53
1659		38			1720	66		34
1660		24			1721	50		30
1661		37			1722	58		31
1662		34			1723	* 17		* 2
1663		14			1724			27
1664		21			1725			25
1665		27			1726			23
1666		27			1727			24
1667		17			1728			34
1668		26			1729			* 1
1669		25						
1670		30						
1671		17						
1672		40			1751			111

\* ikurra agertzen da agiri zonbait falta direlarik.

URTEA	SORTZE	EZKON.	HERIOTZ	URTEA	SORTZE	EZKON.	HERIOTZ
1752			54	1800	62	5	* 11
1753			48	1801	58	10+22	26
1754			60	1802	52	7	36
1755			54	1803	73	14 + 4	27
1756			71	1804	56	10 + 2	36
1757			57	1805	62	8	30
1758	56		112	1806	60	11	34
1759	74	13	29	1807	54	9	41
1760	72	23	47	1808	56	12	37
1761	64		60	1809	60	13	38
1762	76	16	75	1810	46	11	31
1763	66	11		1811	57	9	47
1764	74		* 29	1812	45	12	59
1765	63			1813	54	5	68
1766	72			1814	37	8	125
1767	66		* 53	1815	42	18	20
1768	60	15	61	1816	49	14	20
1769	72	11	* 31	1817	45	7	24
1770	61		64	1818	40	9	20
1771	66	7	* 26	1819	49	4	25
1772	47	16		1820	46	6	
1773	63	11	* 26	1821	52	8	24
1774	62	19	* 21	1822	53	13	37
1775	52	7		1823	41	11	36
1776	* 31	17	59	1824	46	11	31
1777	* 40	15	40	1825	46	6	31
1778		13	42	1826	41	9	16
1779	* 36	4	95	1827	49	6	34
1780			93	1828	47	17	36
1781	* 19	4	* 65	1829	59	7	36
1782		2	* 13	1830	47	13	39
1783	* 31	8		1831	55	17	50
1784	* 36	9		1832	51	15	41
1785	* 49			1833	45	12	35
1786				1834	60	16	41
1787				1835	72	18	61
1788	* 1			1836	71	15	48
1789	* 1			1837	71	28	49
1790				1838	82	23	51
1791	* 2		52	1839	85	14	45
1792			* 20	1840	68	17	48
1793	* 35		* 22	1841	75	8	44
1794	* 8		* 5	1842	57	7	36
1795	* 2			1843	68	9	38
1796	* 2	5	* 6	1844	63	8	51
1797	* 39	15	* 8	1845	63	10	29
1798	* 28	18	* 3	1846	45	9	36
1799	* 29	8	* 8	1847	47	5	43

\* ikurra agertzen da agiri zonbait falta.

URTEA	SORTZE	EZKON.	HERIOTZ	URTEA	SORTZE	EZKON.	HERIOTZ
<b>1848</b>	52	17	40	<b>1875</b>	55	10	
<b>1849</b>	80	15	38	<b>1876</b>	47	13	
<b>1850</b>	52	15	31	<b>1877</b>	57	12	
<b>1851</b>	54	8		<b>1878</b>	50	15	
<b>1852</b>	48	5		<b>1879</b>	48	13	
<b>1853</b>	38	9		<b>1880</b>	55	11	
<b>1854</b>	53	9		<b>1881</b>	41	7	
<b>1855</b>	44	4		<b>1882</b>	52	11	
<b>1856</b>	49	15		<b>1883</b>	41	7	
<b>1857</b>	41	11		<b>1884</b>	54	6	
<b>1858</b>	54	10		<b>1885</b>	50	8	
<b>1859</b>	32	9		<b>1886</b>	42	15	
<b>1860</b>	44	11		<b>1887</b>	50	9	
<b>1861</b>	52	9		<b>1888</b>	37	14	
<b>1862</b>	43	11		<b>1889</b>	49	3	
<b>1863</b>	41	18		<b>1890</b>	38	18	
<b>1864</b>	54	12		<b>1891</b>	50	6	
<b>1865</b>	48	17		<b>1892</b>	49	9	
<b>1866</b>	58	13		<b>1893</b>	44	14	
<b>1867</b>	47	6		<b>1894</b>	47	10	
<b>1868</b>	52	10		<b>1895</b>	41	9	
<b>1869</b>	41	7		<b>1896</b>	46	12	
<b>1870</b>	49	13		<b>1897</b>	40	10	
<b>1871</b>	49	11		<b>1898</b>	39	10	
<b>1872</b>	55	8		<b>1899</b>	54	12	
<b>1873</b>	38	15		<b>1900</b>	52	5	
<b>1874</b>	71	11					

## DOKUMENTUAK ET A AGIRI-MULTZOAK

### **1505 - “Registre des reconnaissances nouvelles des fiefs de Ba yonne et Labour en la Senechaussee de Lannes”**

Zerga-zerrenda bat da. Ber tan agertzen diren etxeak 82 dira (na hiz Olakoerrota –eta menturaz Ola ere– ez ziren aldi har tan geroago izan ziren etxeak) eta etxe horiei Lehetea eta Ibar rola gehituz (etxe noble ezagut uak) 84 etxe-izenen dira orotara ezagutuak 1505ean. Etxeak gehiago ere bazitazkeen (menturaz Lehetea eta Ibarrola etxeen menekoak «fivatiers» ala bertze statusa zuten bertze etxeak ere) eta, dudarik gabe, denak, ala gehienak, Erdi Arotik heldu direnak dira.

1505eko lehen dokumentoa ez du orai ar te nehork atxeman eta gur ega-nat heldu zauzkigunak k opiai baizik ez dira. Bibliografian ager tzen denez Elso, Orpustan, Poupel-Bru etabar, luze-zabal ari izan dira etxe z errenda huni buruz, bainan gauza ageria da ber tze kopiatik izan direla ere, hala nola Irigarai jaunak (onomostikari bur uzko lanttoa) edo Char les Dop jaunak (i kus Lassus jaunaren oharra SARA II libur uan) baliatu dituztenak.

Deiturak eta etxe-izenak gauza bera dira 1505ean (salbuespen ba karra Lassale). Gehienetan ematen da «Mquelle de Subiboro pour la di tte maison et ses appar tenances paye douze deniers tournois» gisako testoa eta orotara 66 pertsonen izenak aipatzen dira, 21 emazte izenak direlarik .

### **1568 - “Les labourdins modifient, pour une plus grande équité, la repartition d'un emprunt royal en 1568”**

E. Goyhenetche jaunaren lau hau «Hommage au Musée Basque» 1989a n argitaratu zen libur uan agertzen da. Lan hunetan 1568k o dokumento bat aztertzen du egileak eta ber tan erakusten du 1568an Er regeak 12 lapurtar aberatsei (heien ar tean bortz Saratar) har tu (indarrez halabainan) mailegu handi bat nola par tekatua izan zen ber tze 119 lapur tarren artean (heien artean 18 Saratar).

Dokumento hunetan Sarak o 23 pertsona agertzen dira, orotara 20 deitura direlarik: hir u Harismendy (Joangosche de Harismendy , M<sup>e</sup> martin de Harismendy, «le seigneur de Harismendy»), bi Haramboro (Miguel de Haramboro, «le seigneur de Haramboro»), bertze guziak deitura ban a. Gizo-nak dira aipatu guziak eta 18 kasutan «le seigneur de ...» formula errepika-tzen da.

### **1588 - “Rolle des maisons & lieux no vales de Sare”**

Manex Goyhenetche jaunak 2000. urtean Pauko artxibategian atxeman dokumento balios hunek eliza-zerga berriak aipatzen ditu eta ibilbide geografiko gisan egina da: Har rondaia etxetik hasirik, Lehenbizkai gaineko etxeak ondotik, eta Irtilar tetik barna Helbar runerat...

Dokumento hunetan 47 etxe-izen aipatzen dira, kasu bakar batean («Joannes Diharce sieur de la maison d'abar soro») etxea eta deit ura desberdinak direlarik.

Bederatzi kasutan per tsonen izenak aipatzen dira, heien artean hiru emazte-izen direlarik.

Interesgarria da maiz aipatzen dela holako etxearen zergak bildua izan direla 24 urtez «pendent lespace de vingt quatre années naguier es passées», ala 6 urtez... Kasu batzutan halere aipamenak urrunago eramaten gaituzte hala nola Haranbur uak 100 urte omen ditu «auoir Ce nt ans ql est fondé», edo Harburuak 120 urte «quil a en viron de six vingtz ans quest fondé lad. Maison» eta Lapitzeak oraino gehiago, hain xuxen «que lad. maison de harbourue a esté fondée et sor tie de lad. maon Delapitze» erraten baita.

47 etxe-izenez kanpo aipatzen dira ere orduko erretor zena M<sup>e</sup> Jean de donamet eta ere bikarioa (co-vicaire) M<sup>e</sup> Jean de Guarat, eta baita ere hilak ziren «feu M<sup>e</sup> Martin de Harismendi» erretor zaharra eta «feu M<sup>e</sup> martin de Berrouette fer mier des droits decimaux du chapitre».

### **1609-1624 - 1.049 Ba taio-agirien zerrenda, Atsularren bataio-liburua deitura**

Agiri zerrenda hunetaz berri tze toki batean luze-zabal arik o bagara ere emanen ditut hemen zonbait xehetasun.

Izaitez Sarako agiri zaharrenak hemen atxematen baditugu ere, formaz eta egituraz dokumento moderro baten itxurakoa da agiri guziak eredu baten gisan emanak baitira.

Agiriak urteka sailkaturik dira eta eguna, ilabetea, haur sortuberriaren izen-deiturak (ala izena soilik), aita-amen izen-deiturak eta ai tautxi-amautziren izen-deiturak ematen ditu.

Agiri horietan etxeak ez dira aipatzen (hiru salbuespenez kanpo), baina halere 1630eko zerrendarekin aldaratzu aintz kasutan familiaikozin etxeeta-kokoa ziren egiaztu ahal izan dugu eta horiek agertzen ditugu etxe-izenen taulan (\*). Beraz, erraten ahal da zonbait deiturek erakusten dutela garbi ki ORDUKOTZ izen bereko etxea eraikia zela (nahiz etxe bezala berantago agertuko den), hala nola

Betrizantzenea (Ald.)	Etxartea	Joangosetegia (Ald.)
Agorreta	Etxegoienea	Kollartegia
Argaitzea	Etxelekua	Landaburua
Basterotegia	Joantxipirenea (Ald.)	Larraburua
Apezetxea (Ald.)	Gaztainerdea	Migelenea
Barrenetxea (Ald.)	Joanikotenea (Ald.)	Mikeletegia
Betritxorenea	Haltzuartea	Ortillopitz
Bidartea	Haranibarrea	Pikasarria
Bidegainea (Ald.)	Istilartea (Ald.)	Sagardi (Ald.)
Bordahandia	Harotzarenea	Zubieta
Burgastegia	Iguzkiagerrea	Bidegorria
Dendaldegia	Iparragerrea	Bordatxipia
Elizaldea (Ald.)	Irlanda	Kamioa
Elizondoa	Iturriaga	Murgia.

(\*) Hara bi etsenplu:

- HARANBERRIA - 1630ek o zerrendan Haranberria etxearen izenean b i pertsona aipatzen dira, Joangoche de Samatellu eta Pier re de Hirigoen «sieurs de Haramber ry». 1609/1624 ur teetako bataio-liburuan atxematen ditugun Petrus de Hirigoien/Joanna de Çamatelu (bi haur Joannes 1623.03.18 - Joanna 1624.01.16) dudarik gabe Haranber riko nagusi-etxek oandere dira.
- XURITEGIA - 1630ek o zerrendan Xuritegia etxearen izenean aipat ua den Martin de Hiriard, eta 1609/1624 ur teetako bataio-liburuan agertzen diren Martinus de Hiriart/Maria de Xuritegui (haurra Joannes 1616.10.17) senar-emazteen ar teko lotura ageria da.

### **1630 - Notari-agiria: Sarako herrian egin zen biltzar re orokor (“la communauté”) batean bildu ziren saratar ren zerrenda (biltzarre horren gaia: Sarak zuen zor batibur uz eztabadatzea)**

Dokumentu balios hau Alfred Lassus jaunak eman zuen argitara bere lan batean SARA I libur uan. Lehenik auzape za («abbé») eta k ontseilu koak («jurats») aipatzen dira eta ondotik bertze herritarra, kasu gehienetan ibilbide geografiko baten gisa ematen direlarik: Lehenbizkai auzokoak lehenik, ondotik Istilar tekoak...

Orotara 121 pertsona dira aipatuak (horien ar tean 22 sinatzen d akite-nak edo sinatu dutenak), guziak gizonak, horietan hiru bakarrik etxeeko-nagusiak ez direnak. Hir u alditan deitura ezin irakur ria da. 31 kasutan deitura eta etxe-izena gauza bera dira, orotara 70 deitura ager tzen direlarik, MARTINENA (6), ITURBIDE (5), ETXEBERRIGARAI (4), HARIZMENDI (4), HAROZTEGI (4), HARRETXE (4), HIRIBARREN (4), BERROETA (3), HARANTXI-PI (3), HIRIBURU (3), HIRIGOIEN (3), ANDUITZE (2), BARNETXE (2), BORDA (2), ETXEGARAI (2), ETXESARRI (2), ETXEBERTZE (2), GARATE (2), HARIZTE-

GI (2), HIRIARTE (2), HIRIGOITI (2), LARRABURU (2), UHARANETX EBERRIA (2), ORTOLOPITZ (2), PIERRESENA (2), SOROETA (2), UHARTE (2), eta berze guziak behin.

Orotara 97 etxe ager tzen dira; 81 kasutan per tsona bakarra da e txe baten ordezkarria. Ber tze 16 kasutan bi dira etxe baten ordezkar iak, 6 alditan aita-semeak (\*) eta 10 alditan nagusia eta suia.

(\*) Bernatenea etxearen kasuan bi aldiz aipatzen da etxe hau, eta horrek erakusten du izen berek o bi etxe zitazk eela, batean «Pierre et Domingo de Pierreschena sieurs de Bernatenea» eta ber tzean «Pedro et Laurens de Sorhoette aussy sieur s de Bernatenea».

Ez da dudarik ez zirela biltzar re hartarat joan Sarako etxe guzien ordezkarriak, ordukotz altxatuak ziren (eta frogaturik diren) 39 etxe:

Andoitza	Harrondoa	Muniortea
Arrosa	Hauziartzea	Olabidea
Baratzartea	Hegaburua	Sorraindoa
Bastandegia	Hiriberria	Teilaria
Beheretxea	Ihartzebehereaa	Xantakorenea
Eltsauspea	Iratzea	Zimistarenea
Urtsuarenea	Itsasgaratea	Zugarriaga
Mixeltorenea	Jomildegia	
Etxeberri	Etxesarria	Apeztegia
Haizagareneara	Lehetekoerrotia	Dominuskorenea
Haranburua	Hiribarreneara	Hirigoienea
Harangurenea	Martinenea	Olakoerrotia
Harburua	Mestruarenea	
Hariztigibehereaa	Mikelendegia	

eta, itxura guzien arabera, ordukotz xutik ziren ber tze 26 etxe

Betrasantzenea	Etxelekuia	Landaburua
Agorreta	Joanikotenea	Migelenea
Basterotegia	Haltzuartea	Mikeletegia
Apezetxearia	Haranibarrea	Piarresenea
Betritxorenea	Istilar tea	Sagardiburua
Bidartea	Harotzarenea	Zubieta
Bidegainea	Irlanda	
Burgastegia	Joangosetegia	Bidegorria
Etxegoienea	Barrenetxea	Bordatxipia

ez baitziren ordezkatuak. Halere 97 etxe ager tzen dira, horietarik 24 lehen aldikotz.

## 1653-1680 - “Roolle des mor ts”

923 heriotze-agiri zer renda interesgarria, urteka sailkatua. Zer renda hunetan ez da batere batasunik eta berdin atxematen dugu:

«Ce 9 decembre (1676) descendit Joseph Busquet», edo

«Ce 29 aoust 1653 mourut Marie dame de Churitegui» edo «ce 15 d' octobre 1653 mourut Joannes Sieur de la maison d'Etchesar ry» gisakoak, edo

«Aud iour 12. (1653) mourut Beltrand de Haristeguy en lamaison delicale de Etcheberria Sieur dicelle» edo «Ce 28 (1654) mourut garacie de Martinena dame d'Etcheber rigaraya», ainitzaberatsagoak.

22 agiritan (1668 eta 1669. urteetan) hila eta ere bi lekuoak aipatzen dira, hurbilekoak (orotara 24 jende desberdin), eta hala  $923 + 24 = 947$  pertsonea desberdin aipatzen dira:

- 660 kasutan (% 70) garbiki azaltzen de per tsona hori nagusi edo etxe-koandere, seme edo alaba dela
- bertze 287 kasutan etxetiar («locataire») edo ber tze zerbait a ipatzen da («gendre», «pauvre», ...)

Gauza ageria da ur te haietako Saratarren artean % 70 bederen heien etxeetakoak zirela eta % 30 gehienez etxetiar, bordari...

245 agiritan deiturak aipatuak dira, orotara 133 deitura desberdin (44 lehen aldikotz). Maizenik ager tzen diren deiturak: ETXEBERRI (1 0) - BARRENETXE, HIRIARTE (8) - ITSASGARA TE (7) - MARTINENA, HARIZTEGI (6) - GARTA, HIRIBARREN, ITURBIDE (5) - ETXERRI, HIRIGOITI, MURGI, SAINT-MARTIN (4), eta 15 deitura (3) - 25 deitura (2) - 79 deitura (1).

882 agiritan etxe-izenak aipatzen dira, orotara 230 etxe-izen de sberdin (99 lehen aldikotz). Zonbait etxeetan ainitz heriotze ger tatu dira (8,9,10,11), bertzetan aldiz biziki guti (1,2). Hala bada ezin dira behar be zalako ondorioak atera heriotze bat ger tatu den etxeari buruz, bai aldiz,ene ustez, heriotze ainitz gertatu den etxeari buruz. Halere, larri-larria harturik 28 etxeetan bakanrik aipatzen dira BETI etxetiar rak (edo nagusiak ez direnak), horietan aipagarienak dira:

- HIRIGOIENEA (9) - IRATZEA (5) - MUNIORTEA (2), hiruak 1505ean aipatutakoak, XIX. menderar te ez dira etxe horietan nagusirik ezagutuko.
- BETRITXORENEA (4) - ETXAUZEA (4) - HARANIBARREA (5) - JOANGOSE TE-GIA (9) - MARGARITARENNEA (4) - MUSKETENE /I (8) - OSPITALEA (7) eta ere ETXETIKIA (2) - GRANAD A (1) - OLABORD A (2), guziak urte horietan lehen aldikotz agertuak eta XIX. menderar te nagusi ezagunik ez dutenak.

- HIRIBERRIA etxean (1505ek o etxea) 7 heriotze ger tatu ziren urte haie- tan eta BETI etxetiar rak ziren; bainan etxe honetan 1769tik ain tzina nagusiak ere ezagunak dira.

Bertze 202 etxetan nagusiak soilki (121) ala nagusiak eta etxet iarrak (81) aipatzen dira.

IZENGOITIAK: 60 alditan izengoitiak aipatzen dira, hala nola: XARDIN - ATABALARIA - AHUNTXAIN - XURIA - GORRIA - XOTIL - GAZTE - MAILEGU - DAR-DATTO - BAKALAU - SUDUR EDER - APEZA - BIRIBILA - AIREA - HAIZE A - HAU-RRATTO - BIXAR GORRI - TIRRIN - NESKA TXA - MAINGU - HOBERENA - MARIMOTXA - MARITTIPITTO

OFIZIOAK: 55 alditan ofizioak aipatzen dira (gauza ageria da laborariak ez direnen ofizioak aipatzen direla soilki). Orotara 16 ofizio des berdin: 9 alditan ERROTARIA («meusnier», «molinier», «munier») - 8 alditan ARTZAINA («pasteur») - 7 alditan APEZA (bar nean bi er retor) - 7 alditan ITSAS-GIZON («marinier») - 6 alditan «beate ter tiaire» edo «beate» edo «Tiers Ordre St. Fran ois», 5 kasutan zoin etxetak oak ziren aipatzen delarik (ORT ILLOPITZ - ARANTZETA - ZUELBEHEREA - SALABERRIA - HARANBIDEA) - 5 alditan ZAPATAGINA (batean «cordonier et marinier») - 4 alditan ZERBITZARI - 3 alditan NOTARIA - 3 alditan «MERCIER» (2 «grand mercier» eta «petit mercier» bat) - 2 alditan «CHIRURGIEN» - behin: MAHASTIZAINA - SOLD ADO - MARTXANT A - SERORA («BENOISTE»).

**1688 - Notari-agiria: 1642an hasi hauzi baten segida. Hauziaren gaia: h autetsiek (auzapez eta k ontseilukoak) behar zutela lehentasuna zonb ait elizkizunetan (ordu ar te lehentasuna noble eta handikiek baitzu ten)**

Dokumentu balios hau ez da sekulan argitara emana izan (ez eta ere 1642koa). Alfred Lassus jaunak halabainan luzaz aipatzen ditu, batez ere 1642koa, SARA I libur uan.

Orotara 122 per tsona aipatzen dira, guziak gizonak; horien ar tean 113 etxeko nagusiak dira (nahiz horietarik 6 kasutan ez den ar ras garbia zoin den deitura: «Joangoche sieur detcheberrigaray» - «Joannes sieur de choannarena» - «Ber tand sieur entien desuelgara y» - «Joannes sieur debi dart» - «Miguel sieur Detchego yen» - «Miguel sieur Jeune delar raboure», hain xuxen ere bertze 6 kasutan «Joannes diratzeboure sieur delad. Maison» bezalakoak ematen direlarik). 6 kasutan (edo 12) deitura eta etxe-izena be rdinak dira.

Etxeko nagusi gisa aipatuak ez diren 9 per tsonen artean 1 auzapeza da eta 5 kontseilukoak dira.

74 deitura desberdin ager tzen dira: ITURBIDE (13), ETXEBERRI (5), HAUZIARTZE (4), HIRIARTE (4), AGERRE (3), ARROKI (3), HARANTXIPI (3), HIRIBARRREN (3), LEHETXIPI (3), KARRIKARTE (2), DUCASSOU (2), ELIZALDE (2), ETZAIL (2), HARANGUREN (2), HARIZMENDI (2), HIRIGOITI (2), ITURRIAGA (2),

LARRALDE (2), MARTINENA (2), OIHARTZABAL (2), OLABARATZ (2), ZUELGRA-RAI (2); ber tze guziak behin ager tzen direlarik.

106 etxe-izenak ager tzen dira dokumento hunetan, 99 kasutan per tsona bakarra delarik etxe baten ordezkaria. Ber tze 7 kasutan bi dira etxe baten ordezkariak, 2 alditan aita-semeak eta 5 kasutan nagusia eta sui a (iduriz).

Ez da dudarik dokumento huntan ez direla Sarak o etxe guziak aip atzen, ordukotz 250 etxe ingur u baitziren Saran.

### **1697-1728 Ur teetako agiriak**

- Sortzeak (821): - 1697 (27) - 1708/1716 (513) - 1718 (12) - 17 19/1722 (252) - 1723 (17)
- Ezkontzak (151): - 1697 (6) - 1709/1719 (145)
- Heriotzeak (520): - 1697 (14) - 1709/1711 (74) - 1714 (4) - 17 15/1722 (292) - 1723 (2) - 1724/1728 (133) - 1729 (1)

Agiri guziak eliza-agiriak dira.

Agiri zerrenda horietan ez da batere batasunik:

- 1697ko agiriak biziki luzeak dira baina heriotze-agirietan ez dira deiturak beti emanak, hala nola «Garachina dame de la maison de Borda - chipy» ...
- 1708/1711 urteetako agiriak aski ongi emanak dira, eta gehienetan (heriotze-agirietan ere) deiturak emanak dira.
- 1714etik aintzina bada denetarik bainan heriotze-agiri ainitze k ez dute berri handirik ematen (430 heriotze-agiritan 223 deitura baizik ez da agertzen), hala nola «fut enterré le gendre de lancha mort à Capetenea», edo «mourut subitement une fille de Collocarenea», edo «fut enterré le nommé llaguin» edo «fut enter rée la femme de cocasuh i», edo «Mar sans motcha».

### **1751-1808 Ur teetako agiriak**

- Sortzeak (2.088): - 1758/1775 (1.166) - 1776/1777 (71) - 1779 (36) - 1781 (19) - 1783/1785 (116) - 1791 (2) - 1793/1799 (143) - 1800/1808 (533)
- Ezkontzak (381): - 1759/1760 (36) - 1762/1763 (27) - 1768/1769 (26) - 1771/1779 (109) - 1781/- 1784 (23) - 1796/1800 (51) - 1801 (10 + 22) - 1802 (7) - 1803/1804 (24 + 6) - 1805/1808 (40)

- Heriotzeak (1.898): - 1751/1762 (778) - 1764 (29) - 1767/1771 (235) - 1773/1774 (47) - 1776/1782 (407) - 1791/1794 (99) - 1796/1800 (36) - 1801/1808 (267)

1793 arteko agiriak eliza-agiriak dira. Ordutik goiti herri-agiriak soilki atxematen ditugu 1797 ur teraino. Ondotik bai eliza-agiriak eta bai herri-agiriak ikertuko ditugu. Iku ohar rak:

*Oharra 1:* 1791 urteko 52 ehoritz-agiritan 46 Teillary erretorak sinaturik dira eta azken 6 agiriak DUR ONEA erretor zin-egileak sinaturik. 1792 urteko 20 ehoritz-agiriak Duronea erretor zin-egileak sinaturik oan dira.

*Oharra 2:* Orotara 1780/1800 ur teetako agiritan ainitz eta ainitz falta dira. Bertzalde gerora eliza-agiria eta herri-agiria bana bertze berdintsua izanik ere 1801 eta 1803/1804 urtetan badira orotara 28 ezkonta-agiri gehiago herri-agiritan eliza-agiritan baino.

*Oharra 3:* Herriko Etxeko agiriak 1800 urtetik goiti liburutan emanak dira.

### **1809-1900 Urteetako agiriak**

- Sortzeak (4.696): - 1809/1853 (2.453) - 1854/1900 (2.243)
- Ezkontzak (1.016): - 1809/1853 (517) - 1854/1900 (499)
- Heriotzeak (1584): - 1809/1853 (1.584) - ...

Herriko Etxean diren agiriak liburutan emanak dira, bakoitza hamar urteen agiriak dituelarik eta guziz eskuragarriak dira. Orobear har turik agiri bakoi zoin etxetan geratua den soritzea, ezkontza edo heriotza, aipatzentzu, salbu azken urtetan, nun etxearen aipamena ez baita beti egiten.

1839ko kalastra zaharra: "Lur jabegoa Saran 1839 urtean" deitu atalean adierazten da zer den dokumento balios hau.

\* \* \*

Orotara 8.654 bataio-agiri (edo soritz-agiri), 1.555 ezkontza-agiri eta 4.925 heriotza-agiri ikertuak izan dira.

# 1. Etxeak



## **1.1. BI HITZ**

Aintzin solas orok orrean erran bezala etxeen izenak osotasunean emaitza eta etxe zahar rak kokatzea izan ziren ene lehen lanak Sarar a etorri ginelarik 1987an. Geroago xehetasunetan sar tuko banaiz ere, nahi nituzke, halere, zonbait argitasun eman orok orrean etxeeri bur uz.

### **1.1.1. Transkripzioa (nola izkiriatuak izan diren etxe-izenak eta nola izkiriitu beharko liratekeen)**

**LAPURDI, BAXENABARRE eta ZUBEROAn**, euskara etxeko mintzairia izanik, etxe-izenak anarkia handiz izkiriati (eta izkiriatzten) izan dira; hala geratzen da Saran ere.... eta ikusten ditugu Angoinia, Etchegoinia, Aldaia, Anbua eta horrelakoak, Harangurenea, Etxegoienea, Aldagaraia, Haranburua beharrez.

Izkiriatzeko forma makur horiek bi arrazoinengatik gertatzen dira denboran barna: ahoskatzea (herria ahal delarik hitzaren labur tzearen aldekoa da) eta ortografia (maiz frantses or tografia har tu izan da).

Gure ikerketa lanetan, eta denboran gibelerat eginez, lehen forma osoak eta egiazkoak atxematen ditugu (nahiz frantses ortografian emanak) eta bana bertze aldaketak ez dira handiak XVI, XVII, XVIII. mendetan. Aipatuko ditut halere zonbait:

- a) Haranboro, Harboro, Lekonberri, Zamatelo... gisakoak (orai HARAN BURUA, HARBURUA, LEKUNBERRIA, ZAMATELUA ...)
- b) Joantxipirena, Joanarena, Joanikotena, Joangosetegi... (GANTXIPIRENA, GANARENEA, GOANIKOTENEA, DONGUSTEGIA...)
- c) Bastagandegi (BASTANDEGIA) - Domasaint (DOMINTXAINEA) - Elardui (ELORDIA) - Hiriberri (HIRABERRIA) - Lataberro (LATABERRIA) - Mikelundegi (MIKELENDEGIA) - Bonihort (MUNIORTEA) - Ortillopetz (ORTOLOPITZEA) - Xoantokorena (XANTAKORENEA)...

Aipatu behar da XVI. mendearen etxe-izenak BETI ar tikulurik gabe izkiriatzten zirela (ARGAIN, AGERRE...), eta geroago BETI ar tikuluarekin (zonbait salbuespen halere). Aldaera hori uste baino zahar ragoa da eta jada 1630ean ikusten ditugu SABATENEA, MARTINENEA eta holakoak. Guk etxe-izenak orainko eran erabiltzen ditugu: A GERREA, MARTINENEA etabar.

Bertzalde ainitz etxe-izen k onposatuak dira, errota, borda eta ha lako hitzen medioz, eta galdea hor da: nola izkiriatu Biranda-Etxeber riko Borda, hala BIRANDAETXEERRIK OBORDA? Nik bigarrena hautatu dut: alde b atetik tradizioa halakoa da (LEKUEDERREA, HARANTXIPIA, etsenplu), bertzetik kon-preni errazagoa da LEHETEK OERROTAko errotaria edo BIRAND AETXEERRI-KOBORDAko bordaria edo ETXEGARAIAK OBORDAko alaba er ratea LEHETEKO ERROTAko errotaria edo BIRANDA-ETXEERRIKO BORDAko bordaria edo ETXE-GARAIAKO BORDAko alaba baino.

### **1.1.2. Etxeak noizk oak**

Ez da sekulan jakiten ahal noiz izan zen altxatua etxe bat lehe n aldikotz.

Dokumento batean etxe-izen bat azaltzen delarik badakigu ORDUK OTZ etxe hori xutik zela, ETA EZ BERTZERIK.

Bertzalde jakin badakigu Erdi-Aroan (XI, XII, XIII, XIV, XV. mendeetan) bazi-  
rela Euskal Herrian laborantza-hazkuntzatik bizi ziren etxaldea k, bainan den-  
bora haietako eraikuntzarik ez da ezagutzen. XV. mendeko azken aldikoak eta  
XVI-XVII. mendeko etxeak badira Euskal Herrian han-hemenka. Den a den  
gauza ageria da etxe-izenak iraun egin duela XV-XVI-XVII. mende etatik orai  
arte (eta menturaz Erdi-Arotik orai ar te), eta etxe berria lehenaren gainean  
eraikia izan dela, eta maiz lehenaren materialeak erabiliz, bainan beti izen  
bera atxikiz. SARA, SENPERE, AINHOA eta inguruko herritan badira ainitz etxe  
1660/1680 urtetan altxatuak eta horietarik ainitz eta ainitz lehenagoko etxe  
baten segida dira. Er raten ahal da beraz EL TSAUSPEA etxe zahararen gaine-  
an - 1505ko etxea eta menturaz lehenagokoa ere - eraikia izan zela XVII.  
mendean orai ezagutzen duguna (eta harrian 1667 urtea zizelkatua duena).

Guk beraz etxe baten LEHEN AIP AMENA diogularik dokumentaturik a gertu  
den zaharrena ematen dugu (Ikus ZERREND AK - AGIRIAK).

Ondoan aipatuko ditugu harrian urtea zizelkaturik duten Sarak o etxeak,  
azpimarratuz LEHEN AIP AMENA gisa har ditzak enak:

ESTEBERNEA (1648)  
GALANTNEA (1655)  
ORTOLOPITZBEHEREA (1660)  
PLAZIDA (1660)  
ELTSASUSPEA (1667)  
BORDABERRIA (BASK ORENEA)  
(1668)  
BIDEGARAIETXEERRIA (MUTILARE -  
NEA) (1684)  
HARANBURUA (1685)  
ZUELBEHEREA \*\*\* (1694)  
DENDALDEGIA (ESPIL TEGIA) (1701)  
BARRENETXEA (KA TALINARENNEBE-  
RRIA) (1703)

HAROTZARENEA (1704)  
IHARTZE BEHEREA (1706)  
KAPETENEA (1727)  
ARROSAGARAIA (1734)  
ZULUBIA (1746)  
GALARRETA (1755)  
MEHAKAETXEERRIA (DUNDURINEA)  
(1757)  
ITURRIOTZEA (1758)  
GRANADA (1760)  
LARRABURUA (1775)  
IBARTSOROKOERROTA (1790)  
ERROTALDEBORDABERRIA (SER ORA-  
RENEA) (1802)

MARGARITARENNEA (GAPELUGORRI-  
RENEA) (1811)  
LAPLACE (POSTETXEZAHARREA)  
(1819)  
IHARTZEGARAIA (1825)

HARRONDOA (1829)  
DOMINUSKORENEKOBORDA (ERNA-  
RENEKOBORDA) (1837)  
INBIDEA (MO XORENEA) (1867)

\*\*\*Zuelbeherea: 1924ean ber reraikia izan zen *bainan ez lehengoaren toki berean*; etxe zahar raren harriak erabili zituzten.

### **1.1.3. Etxeak-etaldeak**

Etxeetan zoin dira (ala izan dira) etxalde \* eta zoin etxe \*\*?

- \* – Etxaldea, laborantzatik eta hazkuntzatik bizi den familia batea n  
gunea (etxea bera barne), hein batean, baratze, landa, soro, sagardi, gaztainaidi, oihan eta larre duena.
- \*\* – Etxe soila ditaik e lur eremu tipikoa eta laborantza ezberdineko ofiziotik familia biziaren duena.

Nekez ekartzen ahal da erantzun garbia galde horri. Hain zuzen, 1839ko "argazki" on bat badugu bainan ez da berdin lehenagoko denboretan:

## **XVI. MENDEAN**

- 103 etxeen izenak ezagutuak \*
  - populazioa: 1.000 eta 1.500 arren tekora zitakeen
  - lur erabiliak: ezin zehazki jakin
  - laborantzaz kanpoko ofizioak: ezin jakin
- \* 103 etxe horietarik 87 dira soilik gelditzen 1839an. Galduak izan diren batzu halere etxe ezagunak izan dira, hala nola Apeztegia, Hirigoienea, Ihalarrezaharrea, Perutegia, Uhaldea; orotara, beraz, 92. Horietarik 23 (% 25) izanen dira geroago etxe "tiki" eta 69 (% 75) etxalde. Ez da halabainan alde batera utzi behar, zonbait kasutan, XIX. mendean tiki deinen etxe bat, menturaz, XVI. mendean etxalde bat izana zela; dena den horiek salbuespenak izan ditzakete, hain zuzen ez dugu ahantzi behar Ihalarreko karrikan bazirela jadanek o 11 etxe, kokapena dela-ta sekulan etxalde izan ez direnak.

## **1839AN**

- 351 etxe\*
- populazioa: 2.000 inguru
- lurrak: 23.941.800 m<sup>2</sup> herritarrenak, 26.322.500 m<sup>2</sup> Herriarenak

- \* 351 etxeetarik (349 kalastran ager tzen direnak + Elordik oborda eta Harriaga) 116 dira 10.000 m<sup>2</sup> baino gutiago dutenak eta 23.5 10.000 m<sup>2</sup> baino gehiago dutenak (ez da dudarik 10000 m<sup>2</sup>ko muga hori guztiz arbitrarioa dela eta baditaik e zonbat etxe gutiagorekin ere egi azko etxalde izaitoa eta, alderantziz, bertze batzu, gehiago izanik ere, etxe soil izaitoa). Halere muga gisa har tzen badugu, etxeen heren bat (% 33) e lirateke etxalde, eta bi herenak (% 67) etxalde liratek e. Ohartu behar da, bertzalde, ez direla 116 etxe "tiki" horiek berdin k okatzen Sarako atalean: A) atalean 28 (gehienak Ihalar reko karrikan) - B) atalean 6 - F) atalean 3 - G) atalean 79 (Plazak o guziak baina ere ber tze zonbait Lehenbizkai, Hegimehar eta Istilar te auzotan)

Orokorki harturik ez da halak o iraultza 10.000 m<sup>2</sup> baino gutiago duten etxeen kopurua % 25 etik % 33ra pasatzea LAU MENDEZ.

Gure ustez aldaketarik handiena XVIII eta XIX. mendetan gertatu da 100 bat etxe "bik oiztu" direlarik ... K OBORDA duten etxeak sor tuz (guziak etxaldeak, ondorioz etxe sor tzailak maiz etxe soil bilakatuz.

Dena den nek e da zoin ziren etxeetak o (edo lur eremuetak o) jabeak ez ziren ofizioak jakitea. (Notari-agirien ik erketak ekar lezak e galde horien arrapostua).

\* \* \*

Beude gaineko lerro horiek eztabaidea baten argigarri eta pizgarri; hain zuzen Saran egin ik erketa bertze herriean egin baledi ez da du darik argia etorriko litzakela bai Sarara bai eta ere ber tze herrietara.

Etxeeri buruzko lan hau, menturaz bide idekitze bat izanen da. Ez da dudarik metodologia bera (ala ber tsua) erabiliz Euskal herriko herri guzien zerrendak eta kalastra zaharreko ikerketak sakonki eginez gure historiaren atal batera argia etorriko litzakeela eta mitoetarik er realitatera iragan ginezkeela. Eta horrela ez genituzke gehiago irakurriko jadanik argitaratuak diren hainbat eta hainbat bitxik eriak eta zuzenak ez diren xehe tasunak (bizipahiru etsenpluen ematek o aipa ditzadan: Iletegia Iantegia Plazan kokatua zela - Muskotenea izenaren eran nahia "maison ver te" omen da - Lekunberria "ahaztea" Sarak o erroten historia egiterak oan - Oraiko erretor etxeen den euskarazk o plaka baten K OPIATZERAKOAN, BEDERATZI HUTSEN egitea (euskarari buruzko alergia ote?...) etabar ...

## 1.2. TAULA

### 1.2.1. Taularen bi parteak

- Lehen partea: 1839k o kalastran ager tzen diren 349 etxeen zer renda.
- ELORDIKOBORDA, HARRIAGA etxeak 1839k o kalastran ez badira ere bai lehenago eta ere geroago xutik egon diren etxeak: ELORDIKOBORDA 1811tik 1873rar te; HARRIA GA 1588tik orai ar te.
- Bigarren partea: 1839 baino lehen desager tutako etxeak, horietarik batzu aski maiz aipatuak agirie tan (ALKABUXARONEA, APEZTEGIA, BIDEGORRIA, BORDATXIPIA, DOMINUSKORENEA, HANDDIETA, HIRIGOIENEA, IHALARREZAHAHARREA, KAMIOA, KRISTOBALENEA, LEKUBERRIA, MURGIA, NEKATTORENEA, PERUTEGIA, SABATENEA, UHALDEA) bertzeak aldiz guti e do biziki guti aipatuak. Guti aipatuak direnen artean baditaike bertze etxe baten bigarren izena izaita holak o edo halak o kasutan. Dena den gure kontuetan etxe multzo osoa bi par tetan emana da, lehena 1839ko zerrrendako multzoa delarik eta bigarrenez 1839 baino lehen desager tutako multzoa.

### 1.2.2. Taularen irakurketa

Zutabeak:


- a) 1505ko zerrenda
- b) 1568ko zerrenda
- c) 1588ko zerrenda
- A) 1609/1624k o bataio agirietarik ateratak o zerrenda
- d) 1630ko zerrenda
- B) 1653/1680k o heriotze agirietarik ateratak o zerrenda
- e) 1688ko zerrenda
- C) 1697/1715k o sor tze/ezkontza/heriotze agirietarik ateratak o zerrenda
- D) 1715/1839k o sor tze/ezkontza/heriotze agirietarik ateratak o zerrenda
- E) 1839ko kalastrak o zerrenda
  - E1 Etxe-zergak (10 kategorietan emanak dira etxe-zergak)
  - E2 Kalastrak o zenbakia eta atalaren (sekzionalearen) letra
  - E3 Etxearen ingur uko eta hurbilek o eremu guzien balioa metro karratuetan
  - E4 Etxeak zonbat ate eta idekidura zituen (kalastran)
- F) Etxe desager tuak (+)

Horizontalki:

- Zenbakia dutenak, kalastran agertzen diren bezala emanak dira, euskal ortografiaz haatik. Etxe ba t bi (ala hir u) partetan emanak b ada bi edo hiru lerro hartuko ditu. Etxe-izenak letra handiz emanak dira. Zenba it kasutan ondoren ematen dira izen zahar ragoak edo berriagoak (\*), letra tikiz.
- Zenbakirik gabe eta letra tikiz emanak dira izen zahar ragoak ala berriagoak eta ondotik letra handiz 1839k o izen ofiziala.

## SARAKO ETXEAK 1839an

O



		a	b	c	A	d	B	e	C	D	E1	E2	E3	E4	F
1	ADAMETA (= Haranbidea eraik.)							*	*	8	783/A	453	4	+	
2	ADAMETAKOBORDA							*	*	8	368/B	30905	4		
3	ADDIMARENREA Betrisantzenea						*	*	*	7	238/G	5524	4		
4	AGERREA	*			*	*	*	*	*	7	636/G	115213	8		
5	AGERREKOBORDA									9	195/F	55821	3		
6	AGORRETA						*	*	*	*	9	467/G	5872	3	
7	AGUSTINENBORDA Munddunirenekoborda								*	7	9/C	39686	6		
8	AINESENEA						*	*	*	*	9	146/G	8712	3	
9	AINESENNEKOBORDA									8	159/C	20216	4		
10	ALDABEA		*	*	*			*	*	8	110/G	4181	4		
11	ALDABEKOBORDA								*	9	425/F	28404	3		
12	ALDAGARAIA				*	*		*	*	9	469/F	28795	4		
13	ANDOITZEA	*			*		*	*	*	7	705/G	122912	6		
	"									7	709/G	"	5		
14	ANDOITZEKOBORDA Andrestegia* FUSILDEGIA 110								*	9	66/A	19026	4		
15	ANIOTZEA (ANAIOTZARTEA)		*	*	*	*	*	*	*	6	601/G	62806	?		
16	ANIOTZBEHEREA			*	*		*	*	*	7	572/G	13603	5		
17	ANIOTZBEHEREKOBORDA								*	7	149/F	120606	9		
18	APEZARENEA			*		*	*	*	*	6	421/G	7772	8		
19	APEZARENEKOBORDA Apezetxea								*	10	740/B	150837	2		
	BERBENDERARENEA 43														
20	ARANTZETA				*			*	*	4	806/G	1652	13		
21	ARANTZETABERRIA									4	805/G	119	8		
22	ARGAINEA	*		*	*	*	*	*	*	5	449/G	288809	20		
23	ARGAINEKOBORDA								*	9	477/G	"	3		
24	ARGAINAGAINA Gainekoetxea I*								*	9	468/G	"	3		
25	ARGAINENEA Martinargainenea						*		*	9	516/A	19510	4		
26	ARGAINENEKOBORDA								*	10	416/B	58739	2		
27	ARGAITZEA		*	*				*	*	6	516/G	46009	11		
28	ARROSA		*	*	*			*	*	4	687/A	46983	17		
29	ARROSAKOBORDA								*	9	635/B	75240	3		
30	ARROSAGARAIA						*		*	6	332/G	24115	14		
31	ARROSAGARAIIKOBORDA								*	8	339/C	95354	4		
32	BAHATTORENEA Bapotegia* PLAZAETXEERRIA 302		*	*			*	*		9	189/G	4610	3	+	
33	BARATZARTEA	*					*		*	7	756/A	2939	5		
34	BARNETXEA Mendiburutegia Barrenetxea KATALINARENNEBE- RRIA 220								*	3	800/G	308	18		
35	BASKORENEA Bordaberria I						*		*	9	558/G	29411	3		
36	BASTANDEGIA	*	*	*			*		*	9	346/G	17499	3		
	"								*	9	345/G	"	3		
37	BASTANDEGIKOBORDA								*	10	297/C	21585	2	+	
38	BASTEROTEGIA			*	*			*	*	7	722/A	1875	5		
39	SalaberriBEHERETXEA		*	*			*		*	9	269/G	1555	3	+	
	"								*	8	271/G	"	4		
40	BEHERETXEKOBORDA								*	7	782/B	69672	5		
41	BELTXARENEA Larrondozaharrea						*		*	8	276/G	6116	6	+	
42	BELUETENEA						*		*	8	468/A	42728	4		
43	BERBENDERARENEA Apezetxea Bernatenea BEXINENEAA 49							*	*	3	827/G	2196	16		

		a	b	c	A	d	B	e	C	D	E1	E2	E3	E4	F	
44	BERROETA	*	*	*	*	*	*	*	*	*	5	439/G	114292	7		
45	BERROETAKOBORDA									*	9	436/C	131257	3		
	Beteretxoa BETRITXORENEA 48															
	Betriluzenea BETRIRENEA (I) 46															
46	BETRIRENEA (I) Betriluzenea						*	*	*	*	8	39/B	1998	4		
47	BETRIRENEA (L)						*	*	*	*	9	493/F	29755	3		
	Betrasantzenea ADDIMARENDA 3															
48	BETRITXORENEA Beretetxoa						*	*	*	*	7	728/A	203	5		
49	BEXINENEA Bernatenea	*	*	*			*	*	*	*	4	142/G	25404	22		
50	BEXINENEKOBORDA									*	9	651/C	12442	3		
51	BIDABURUA						*	*	*	*	10	76/G	1764	2	+	
52	BIDARTEA						*	*	*	*	8	215/G	6208	4		
53	BIDEGARAIA BIDEGAINA						*	*	*	*	8	285/G	4723	6		
	Bidegaraietxeberria MUTILARENDA 282															
54	BIDEGARAIKOBORDA									*	8	47/C	25710	4		
55	BIRANDAETXEPPERRIA									*	8	623/A	23823	6		
	Birandaetxeberrikkoborda HB 138															
56	BITXIRENEA							*	*	7	699/A	1812	5			
57	BITXIRENBORDA									*	8	661/C	76699	4		
	Haranburukoborda I															
58	BOHOINARENDA									*	9	725/A	965	4		
	(=Martintxorenea eraik)															
59	BOLAKOERROTA Bola						*	*	*	*	E	103/C	66541	6	+	
	Borda I ERR OTALDEBORDA 89															
	Borda II BORDD A 64															
	Bordaberria I BASKORENEA 35															
60	BORDABERRIA II									*	7	598/B	18860	5		
	Bordaberrikkoborda															
61	BORDAHANDIA						*	*	*	*	8	608/G	27347	7		
62	BORDATXARREA									*	8	59/B	10482	4		
	Istilart-Barnetxea							*	*	*	7	320/C	86037	5		
63	BORDATXARREKOBORDA									*	7					
	Bordatxoia MOXORENEA 276															
64	BORDDA Borda II						*	*	*	*	9	70/G	3934	3	+	
65	BORDDAKOBORDA									*	8	578/C	81633	4		
66	BORTXARENDA									*	7	81/B	52904	5		
67	BOTIKARIOA									*	4	824/G	521	8		
68	BOTTOINRENDA							*	*	*	*	8	630/A	27524	4	
	Olaide-Bidegarai															
69	BURGASTEGIA							*	*	*	*	8	752/A	2990	3	
70	BURKIA	*		*	*	*		*	*	*	8	743/G	30438	8		
71	DENDALDEGIA Espiltegia*						*	*	*	*	6	303/G	11860	8		
72	DENDALDEGIKOBORDA									*	9	314/C	100661	3		
73	DENDARIARENDA (Lust.* Lastiri*)								*		4	818/G	361	9		
74	DOMINTXAINEA	*		*	*			*	*	*	9	703/A	1979	4		
75	DOMINUSKORENEKOBORDA									*	8	364/B	44845	4		
	Ernarenekoborda*															
	Donguztegia JOANGOSETEGIA 214															
76	DOTORARENBORDA									*	9	754/B	69836	3		
	Dundurinea*															
	MEHAKAETXEPPERRIA 262															

		a	b	c	A	d	B	e	C	D	E1	E2	E3	E4	F	
77	ELIZALDEETXEERRIA				*	*		*	*	6	845/G	4516	?			
	"									6	847/G	"	6			
78	ELIZONDOA				*	*		*	*	6	841/G	2066	7			
	Elorga SORRUETENEAE 309															
79	ELORDIA				*	*	*	*	*	8	177/A	26234	4			
80	ELTSASUSPEA	*	*		*			*	*	6	724/G	93288	11			
81	ELTSASUSPEK OBORDA									10	216/F	33978	2			
82	ERKATXUA Joanesharginarenea							*	*	9	91/A	17242	4			
83	ERNARENNEA Ursuarenea	*				*	*	*	*	6	727/A	11245	9			
	Ernarenekoborda*															
	DONINUSKORENEKOBORDA 75															
84	ERREKARTENEAE Mixetorenea	*		*	*		*	*	*	10	742/A	846	2			
	"									10	743/A	"	2			
85	ERREMMENTA	*			*	*	*	*	*	10	748/A	340	2			
86	ERRETORRETXEA Maison Curiale									*	-	792/G	0	10		
87	ERROTA (BEHEREKOERROTA)															
	Moulin d'en bas									*	E	793/A	705	3	+	
88	ERROTABERRIA									*	*	E	26/B	5459	3	
89	ERROTALDEBORDA (Laborde)															
	Borda I	*	*	*	*			*	*	5	787/A	19719	16	+		
90	ERROTALDEBORDAKOBORDA										9	680/B	160948	3		
91	ERROTALDEBORDABERRIA															
	Serorarenea*									*	5	348/G	1195	+	11	
92	ERROTALDEBORDAXUMEA									*	7	792/A	553	6	+	
	Espiltegia* DENDALDEGIA 71															
93	ESTEBERENEA						*		*	5	6/G	43338	11			
	Etxalur HARBIRENEA 145															
94	ETXARTEA				*	*	*	*	*	10	37/B	532	2	+		
95	ETXAUZEA Ezkertegia*						*	*	*	2	808/G	786	18			
96	ETXEVERRIA	*		*	*		*	*	*	7	750/A	2939	5			
	Etxeberria L HATTUKETENEAE 166															
97	ETXEVERRIKOBORDA									*	9	543/B	119971	3		
98	ETXEVERRIGARAIA	*		*	*	*	*	*	*	9	103/G	19883	3			
	"									9	104/G	"	3			
99	ETXEGARAI (+ 167)	*	*	*	*			*	*	6	599/A	306910	13			
100	ETXEGARAIKOBORDA									*	9	464/B	94439	3		
101	ETXEGOIENEA					*	*	*	*	7	455/F	32206	6			
	Etxehegia IOIARENNEA 197															
102	ETXELEKUA						*	*	*	9	241/F	20884	3			
	Etxesarria KOLOKARENNEA 224															
103	ETXETIKIA Harantxipietxeberria (+143)							*	*	10	335/G	"	2	+		
